

**HERRITARREN
PARTAIDETZARAKO
ARAUDI
ORGANIKOA**

*Lege Aholkularitza.
Basauriko Udala – Ayuntamiento de Basauri*

ARRAZOIEN AZALPENA.

-I-

Herritarren partaidetza da herrialde bateko eta bertako udalerrri guztietako politika demokratikoaren oinarritzko puntuetako bat. Hainbat arautan arautu izan da, esaterako Espainiako 1978ko Konstituzioan, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean, apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Europako Kontseiluko Ministroen Kontseiluaren gomendioetan.

Tokiko Gobernua Modernizatzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legearen bitartez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean egindako erreformak herritarren partaidetzarako mekanismoak bultzatzen ditu, Europan erabiltzen diren jarduera araei egokitzeko, Europako Kontseiluak hainbat aldiz esan duen bezala.

Historia demokratikoan ikusi ahal izan da herritarren partaidetza mugatuta egon dela, hau da, Udalaren (administrazio-erakunde gisa) eta auzo-elkarteen arteko harremanak baino ez dira egon, eta alde batera utzi izan dira herritarren banakako ekimenak. Gure Konstituzioak aitortu egiten du arazo publikoetan parte hartzeko eskubidea, zuzen-zuzenean nahiz ordezkari bidez; ordezkariok askatasunez hautatuko dira, sufragio unibertsalaren bidez, aldizka egindako hauteskundeetan. Era berean, aitortu egiten du herritarrek funtzio eta kargu publikoetara heltzeko duten eskubidea, berdintasun-baldintzetan eta legeek ezartzen dituzten betekizunekin.

Udal honek bere esku dituen bitarteko guztiekin bultzatu nahi du herritarren partaidetza sustatzea udal kudeaketan, eta horretarako idatzi da araudi hau. Horrela, herritar aktiboak sustatzeko eta, ondorioz, tokiko demokrazia indartzeko estrategia zabalagoaren barruan sartzan da arau hau.

-II-

Arauek, berez, ez dute partaidetzarik bermatzen. Ez da eraginkor egiten boluntarismoagatik bakarrik, araren bat onestean; aldiz, Basaurin gizarteak onartutako eta Administrazioak berak barruan onartutako erabilera eta ohiturekin dago lotuta. Hala eta guztiz ere, partaidetza bultzatzeko neurrien eremu zabalago batean arau egokiak izateak eskubide honen erabilera garatzen lagun dezake.

Beste alde batetik, ez da hutsetik hasi behar. Alde batetik, agindu batzuk zeuden "Auzotarren estatutuari" buruzko tituluaren barruan, indarrean dagoen Udal Araudi Organikoko auzotarren partaidetzari buruzko gai garrantzitsuak arautzen zituztenak, esaterako hauek: herritarren partaidetza udalaren osoko bilkuretan, mozioak, eskaerak eta galderak aurkeztuz, entzunaldia kargu publikoekin edo arauzko herri-ekimena. Gauzak horrela, indarrean dagoen eta bere garaian adostasun politiko handiarekin onetsi zen UAOak atea ireki

zizkion herritarrek udalaren osoko bilkuretan parte hartzeko aukerari, gaur egun oraindik ere aurrerakoitzat jo daitezkeen baldintzetan, herritarren partaidetzarako geure inguruko beste araudi batzuetan azaltzen denarekin alderatuz. Horregatik egin da araudi hori mantentzearen alde eta dagoeneko naturaltasunez onartutako tresnak aplikatzean atzera ez egitearen alde. Izan ere, ikusi ahal izan da horien bitartez, herritarren erakunde eta taldeek, bai eta pertsona fisikoek ere, normaltasun osoz eta maiz jotzen dutela arduradun politikoengana udalaren osoko bilkuretan, egokitzat jotzen dituzten arazoak azaltzeko.

Halaber, Araudi honetan azaldu diren gaiak islatzen zituen Elkartearen Araudia ere bazegoen. Egia da ez zuela garapen eta burutzapenik izan, baina araua bera guztiz baliozkoa dela uste da.

Hori dela eta, aurretik zegoen araudia mantendu eta hobetu nahi izan da, zeuden gai guztiak legerian egondako aldaketei egokিতuta eta testu bakar batean batuta, sinpletasunaren eta segurtasun juridikoaren mesedetan. Halaber, legeetako azken aldaketetatik (Tokiko Gobernuaren Modernizatzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legea), erkatutako esperientzietatik eta, azken finean, geure inguruan zehaztutakoetatik eratorritako berezko berrikuntzak ere sartu dira. Azken horien artean, esaterako, komenigarritzat jo da kexa eta iradokizunak hartu eta tramitatzean espezializatuta egongo den organoa sortzea, "Ombudsman" edo herriaren defendatzailean inspiratuta, baina ez da uste Barrutiko Kontseiluak sortzea beharrezko ez eraginkorra denik, partaidetza organikoa Hiriko Kontseiluaren eta Sektore Kontseiluen bitartez bideratzea askoz eraginkorragoa izango dela uste baita, ikusiko den bezala.

-III-

Araudi hau lau titulu nagusitan dago egituratuta. Atariko tituluan Araudia sortzeko egon diren helburua, aplikazio-eremua eta printzipio nagusiak daude deskribatuta.

I. tituluan herritarren eskubideak bildu dira. Xedapen orokor batean herritarren eskubideak zerrendatu dira. Izan ere, gehienak legeetan eta Konstituzioan bermatu eta araututa dauden arren, garrantzitsuenak zerrendatzen direnean, gutxieneko eskubideen katalogo gisa, ondorio didaktikoa lortzen da. Herritar kritiko eta parte-hartzaileek, kudeaketan nahasiko direnek, lehenengo eta behin, behar bezalako informazioa eduki behar dute. Hori dela eta, lehenengo eta behin, zabal azaldu da informazioa jasotzeko eskubidea. Horrela, garrantzi berezia eman zaio erakundearen web gunean argitaratu behar den informazioari; osoko bilkuretarako gai-zerrendak eta aktak; Udalaren aurrekontu nagusiak eta likidazioa (horrek, esate baterako, aukera emango du politika publikoei, horien helburuei eta aurreikusitako bitartekoei

buruzko jakintza zabaltzeko); HAPO eta lan-eskaintzak; udal araudi osoa eta Udalaren kontratatzailearen profila, zerbitzuen kartak, udal tramiteak, herritar erakundeak, partaidetza-foroak, etab. Informazioa jasotzeko eskubide orokorra arautzean, eskubide subjektiboa den aldetik, honako terminoak ere adierazi dira: informazioa posta elektronikoz ere eskatzeko aukera dago eta, horrelakoetan, gehienez hamar eguneko epean arrazoituta erantzuna emango dela bermatuko da. Teknologia berrien aldeko apustua irmoa da eta, horrela, herritar guztiek web gunean eskuratu ahal izango dute beharrezko informazioa edo, hori nahikoa izango ez balitz, arduradun politikoei galdetu ahal izango diete posta elektronikoaren bidez.

Ondoren, "partaidetza modu inorganikoak" izenekoak arautu dira (hau da, herritarrek udal egiturako organo egonkorretan sartu gabe egiten dena). Horrela, bada, entzunaldi publikoa gure inguruko Udaletan ezarritakoaren antzera arautu da, gutxieneko legitimazio-betekizunak ezarrita. Ondorioz, kudeatzaileek herritarren proposamen, iradokizun eta antzekoei buruz duten iritzia jakiteko aukera eman da. Zabal arautu da eskatzeko eskubidea. Era berean, zabal arautu da herri-ekimenerako eskubidea ere, alderdi bitan: batetik, arauzko herri-ekimena eta, bestetik, jarduera proposamenak egiteko ekimena (hemen UAOan aurreikusitako legitimazio-betekizunak bai egokitu behar izan zaizkie Estatuko oinarrizko legeetan eskatutakoei). Bestetik, osoko bilkurara aktiboki joateko eskubidea azaldu da, oro har, UAOko erregulazioa onartuz, arestian aipatu den bezala. Amaitzeko, udal baliabideak baliatzeko eskubidea eta herri-kontsultarako eskubidea arautu dira. Eta eskubide horiek bermatzeko, herritarrek erabil ditzaketen legezko ekintzei kalterik egin gabe, berme-organo bat sortu da, "Kexa eta Iradokizunen Organoa" izeneko, herritarren erreklamazioen berri izango duena. Logikoa den bezala, bere gomendioek ez dute legez ezarritako errekurtsoen araubidea ordeztuko, baina Osoko Bilkurak bere txostenen berri izango du eta, ondorioz, beharrezko publizitate eta gardentasuna izango dute herritarren kexek eta Udalak emandako erantzunek.

II. tituluaren elkartegintza sustatzeari buruzko informazioa bildu da. Izen orokorragoa eman zaie, "herritar erakundeak", Basauriko elkarte-sare osoaren berri izateko, ez baitute modu formalean eratutako elkarteek bakarrik osatzen; izan ere, badaude beste elkarte modu batzuk gizarte, kirol, kultura eta antzeko eremuetan jarduten dutenak eta nolabaiteko egonkortasuna dutenak, esaterako koadrilak, lagunarteak, etab. Erakunde horiek Udal Fitxategian inskribatuz gero izango dituzten eskubideak aitortu ondoren, Onura Publikoko aitortu diren erakundeei buruzko alderdiak arautu eta Herritar Erakundearen Udal Fitxategia arautzeko xedapenak azaldu dira. "Fitxategi" izena "Erregistro" baino egokiagoa dela uste da, Udalaren beste tresna batzuekin ez nahasteko.

III. tituluak partaidetza organoen araubidea azaltzen du. "Partaidetza organikoa" deienez gero, Udalaren egituraren mailakatuta dauden lankidetzak eta partaidetzarako organo egonkorak direlako. "Hiriko Kontseilua" izeneko sortzea erabaki da, aholkularitza eta partaidetzarako organo orokor izateko, enpresa, sindikatu, emakume, auzo, herritar-talde eta antzeko estamentu guztietako ordezkariak izan beharko dituela. Halaber,

eraginkortasunaren alde, aukera eman da Alkatetzak beste talde batzuetako ordezkariak izendatzeko, landu beharreko plan edo programa zehatzen arabera, Kontseiluari intereseko ekarpenak egiteko.

Sektore Kontseiluak landuko duten berriazko gaiaren arabera arautuko dira, espezialitate irizpideari jarraituz. Horrela, bada, honakoak arautu dira: Iraunkortasun Kontseilua, batez ere ingurumen-alorreko gaiak aztertuko dituen eta dagoeneko esperientziak bildu dituen Tokiko Agenda 21 izenekoaren Partaidetza Foroan. Adineko Pertsonen Kontseilua, antzeko funtzionalitatea duena Basaurin gero eta garrantzi handiagoa duen eta, ondorioz, arreta berezia behar duen talde honetan. Berdintasun Kontseilua, gaur egun ere esperientzia handia duena, baina, beste foro batzuek bezala, erregulazio positiboa behar duena. Bukatzeko, Plangintzako Batzordea, didaktikarako baino aipatu ez dena, bere araubidea orain dela gutxi onetsitako berriazko Araudian dagoelako, eta araudi honetan sartzea gehiegizkoa zela uste zelako. Horrenbestez, hirigintza, ingurumena, adineko pertsonak eta emakumeak bezalako arlo garrantzitsuetan sektore-kontseiluak sortu direla (edo zeudenak positibizatu direla) ikusi da. Agian, etorkizunean, beste partaidetza-foro batzuk sortu edo daudenak aldatu behar izango dira, esperientziak dioenaren arabera. Partaidetza dinamikoa da – edo hala izan beharko luke, behintzat– eta, ondorioz, aldatu egiten da. Horrexegatik aurreikusi da Osoko Bilkurak beste kontseilu batzuk sortzeko aukera.

III. tituluak, amaitzeko, kontseiluen funtzionamenduari buruzko erregulazio orokorra azaltzen du, bai Hiriko Kontseilurako, bai sektore-kontseiluetarako. Horrela, bada, soiltasuna eta eska daitekeen gutxieneko prozedura-zorroztasuna elkartzen saiatu da. Izan ere, kontuan izan behar da legezko prozedurenganako errespetua, behar bezala ulertuta, berme nagusia dela Administrazioarentzat eta herritarrentzat, bai funtzionamendu demokratikoari dagokionez, bai eta erabaki egokiak hartzeari dagokionez ere.

Amaitzeko, xedapen gehigarrien, xedapen indargabetzailearen eta azken xedapenen bitartez, araudia Partaidetza Plan zabalagoaren barruan indarrean sartzea errazteko aurreikuspenak azaldu, Araudia Basauriko gainerako antolamendu juridikoarekin behar bezala integratzeko beharrezko aginduak aldatu eta indargabetu, eta indarrean sartzen da Araudia.

ATARIKO TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. - Helburua.

Araudi honen helburua herritarrek udal kudeaketan parte hartzeko duten eskubidearen erabilera arautzea da, herritarrek eta herritar erakundeek

kudeaketa horretan duten partaidetza eta informaziorako prozedura, bitarteko eta moduak ezarriz.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua.

1. Araudi hau udal administrazioan eta bere erakunde autonomoetan aplikatuko da.
2. Arautuko diren eskubideak Basauriko herritar guztientzat eta egoitza Basaurin duten herritar erakundeentzat izango dira.

3. artikulua.- Printzipio nagusiak.

1. Udalaren administrazio-praktikak azaltzen dituzten printzipio nagusiak dira.

- a) Herritarren udal kudeaketako partaidetza modu eraginkorrean garatzea.
 - b) Elkartze-mugimendua (eta boluntarioen sustapena bultzatzea).
 - c) Udal jarduera eta zerbitzuei buruzko eta udal planekin zerikusia duten proiektu eta jarduerak kudeatzen dituzten erakunde eta elkarten jarduera eta zerbitzuei buruzko informazio zabalagoa eskaintzea.
 - d) Herritar guztiek udal baliabideak baliatzeko aukera dutela bermatzea.
2. Udalbatzak bere burua antolatzeko duen ahalmena erabilia ezarriko dituen partaidetzarako modu, bitarteko eta prozedurek inola ere ezin izango dituzte gutxitu, Legeak eta Udal Araudi Organikoak ezarritakoaren arabera, eskumena duten udal organoei dagozkien erabakiak hartzeko ahalmenak.

I. TITULUA

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ESKUBIDEAK.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRA.

4. artikulua.- Zerrenda.

Basauriko herritarrek eta herritar erakundeek, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen legeria orokorrean aitortutakoez gainera, honako eskubide hauek ere izango dituzte, Araudi honetan ezarritakoaren arabera:

- a) Informazioa jasotzekoa.
- b) Entzunaldi publikoa izatekoa.
- c) Eskatzekoa.
- d) Herri-ekimenerakoa.

- e) Osoko bilkurara aktiboki joatekoa, mozioak, galderak eta eskaerak aurkeztuz.
- f) Udal baliabideak baliatzekoa.
- g) Herri-kontsultarakoa.

II. KAPITULUA. INFORMAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA

5. artikulua.- Edukia.

Herritar guztiek dute informazioa jasotzeko eskubidea, arrazoitutako eskabidea egin ondoren, udal jardueraren eta bere programa eta zerbitzuen berri izateko eskubidea eta udal agiritegiak kontsultatzekoa, horretarako muga bakarrak Konstituzioak, herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen legeria orokorrak eta datu pertsonalak babesteari buruzko legeriak ezarritakoak izango direla.

6. artikulua.- Udalak erakundearen web gunean argitaratuko dituenak.

Honakoak argitaratuko dira Udalaren web gunean:

1. Osoko bilkuretako gai-zerrendak eta aktak, 1.8tik....
2. Udalaren eta bere erakunde autonomoen aurrekontu nagusiak, likidazioa eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako txostenak, hala badagokio.
3. Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.
4. Lan-eskaintza publikoak.
5. Udalaren kontratatzailearen profila, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean aurreikusitakoaren arabera.
6. Indarrean dauden Udal Ordenantza eta Araudiak.
7. Udal tramiteen eta *on line* tramiteen gida.
8. Udalaren eraketa politikoa eta udal arlo eta ataletako arduradunak.
9. Zerbitzuen kartak edo kalitate-kontrolerako beste tresna batzuk, udalak eskaintzen dituen zerbitzuekin dituen konpromisoak azalduz. Konpromiso horien ebaluazio- eta segimendu-bideak adieraziko dira, ebaluazio-prozesuetan herritarrek parte hartzeko dauden berariazko tresnak zehaztuz.
10. Udal Fitxategian inskribatuta dauden herritar erakundeen zerrenda.
11. Partaidetza-foroak.

7. artikulua.- Herritarren informazioa.

1. Udalak bere jarduerari buruzko, udal planekin zerikusia duten proiektu eta jarduerak kudeatzen dituzten erakunde eta elkarten jarduerari buruzko eta herritar guztien bizitza lokaleko partaidetzari buruzko informazio zabalena eskainiko du.

2. Herritar guztiek dituzte, udalarekin duten harremanaren alorrean, herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen legeria orokorrak ematen dizkien eskubideak. Hain zuzen ere, indarrean dauden xedapenek egiteko proposatu diren proiektu, jarduera edo eskabideei ezarritako betekizun juridiko edo teknikoei buruzko informazio eta orientazioa eskuratzeko eskabideari dagokionez, honako eskubideak izango dituzte herritarrek:
 - a) Udalarekin posta elektronikoaren bidez harremanetan ipintzekoa, Herritarrei Harrera egiteko Bulegoaren bitartez edo web gunean identifikatutako arlo, atal edo sailaren bitartez, aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera, egokitzat jotzen den gaia azalduz.
 - b) Bere eskaeraren arrazoitutako erantzuna zentzuzko epean eskuratzekoa, eta, nolahi ere, hamar egun baino gutxiagoko epean, galdera egin zenetik aurrera zenbatzen hasita.

Herritarrei posta elektronikoz emandako erantzuna ez da loteslea izango, araudiak kontrakoa ezarri ezean. Hala ere, ezin izango da inolako jokaerarik zigortu eta ez da erantzukizunik sortuko jokaera hori Udalak berak bide hori erabilita eman duen araudiaren zentzuzko interpretazioak babesten badu.

3. Herritarrei Harrera egin eta Informazioa emateko Bulegoa egongo da, herritarrei oro har harrera egiteko. Eskatutako gai guztiei buruzko informazioa emango die bide posible guztiak erabilita (aurrez aurre, telefonoz, telematika bidez, etab.). Mailaka hartuko dituen eta tramitazio laburtua izan dezaketen espediente eta gaiak kudeatuko ditu eta, hala badagokio, bidezko bulego kudeatzailearengana bideratuko ditu herritarrak.

III. KAPITULUA.

ENTZUNALDI PUBLIKOA IZATEKO ESKUBIDEA

8. artikulua.- Edukia.

1. Entzunaldi publikoaren bitartez, herritarrek, elkarteek edo udal erakundeek jardueraren bat egiteko edo erabaki zehatzen bat hartzeko proposa diezaiokete udal administrazioari; halaber, arazoren bat azaldu edo udalaren interes orokorreko gairen bat azal dezakete.
2. Entzunaldi publikoa ahoz eta ekintza bakarrean egingo da, batzar irekian eta interesa duten herritar, erakunde edo talde guztiak daudela.

3. Administrazioaren kabuz edo herritarrek eskatuta egin ahal izango da deialdia.

9. artikulua.- Herritarrek eskatuta egindako deialdia.

1. Udalak administrazioaren kabuz egin ditzakeen deialdiei kalterik egin gabe, honakoek ere entzunaldi publikoa deitzeko legitimazioa izango dute:
 - a) Udal erroldan inskribatutako pertsonen % 3, euren adina 16 urte baino gehiagokoa bada, bidezko sinadura-orriaren bitartez.
 - b) Herritar Erakundeen Udal Fitxategian inskribatutako elkarte, talde edo herritar erakundeen gutxienez % 10, horietan dauden bazkide edo kide guztien % 10 ordezkatzan badute.
 - c) Herriko Kontseilua edo edozein Lurralde Kontseilu.
2. Aurreko zenbakian ezarritako legitimazioa barruti edo auzo zehatzen bati buruzkoa izan daiteke, horrek bakarrik badu gai horren eragina. Horrelakoetan, aztertu beharreko gaiak eragindako lurralde-eremu zehatzari buruzkoa baino ez da izango legitimazioa.
3. Eskabidearekin batera, aztertuko diren gaiak azaltzen dituen txosten edo memoria aurkeztuko da, bai eta Udalari egingo zaion proposamena ere.
4. Edozein herritar, elkarte edo erakundek, nahiz eta aurreko zenbakian ezarritako legitimazio-betekizunak ez izan, entzunaldia eskatu ahal izango du, politika- edo kudeaketa-erantzukizunak dituzten Udalbatzako kideek entzun dezaten. Entzunaldia arduradun horien agendaren arabera izango da, eta eurek aukeratuko dute noiz egingo den. Nolanahi ere, bermatu egingo da herritar guztiek Udalbatzako kide batek legegintzaldian behin entzuteko duten eskubidea.

10. artikulua.- Funtzionamendua.

1. Dokumentazioa jaso eta egiaztatu ondoren, alkateak edo berak eskuordetutako zinegotziak entzunaldi publikoaren deialdia egingo du, gehienez hilabeteko epean. Gutxienez astebete lehenago egingo da deialdia eta entzunaldirako leku, egun eta ordua, gai-zerrenda eta erantsitako dokumentazioa zehaztuko dira, beharrezkoa izatekotan.
2. Alkatea edo ordezkari izendatzen duen zinegotzia izango da batzarburua. Udalbatzako idazkariak edo eskuordetutako funtzionarioak egingo ditu idazkari-lanak, akta idazteko.
3. Lehenengo, aztertuko den gaiaren txostena azalduko da, gehienez minutu batez.

4. Gero, udalaren arduradun politikoak hitz egin eta bere iritzia azalduko du, bidezkoa bada, gehienez 15 minutuz.
5. Ondoren, bertaratu diren pertsonak hitz egingo dute, bakoitzak gehienez bost minutuz. Denbora hori hitz egiteko eskatu duen pertsona-kopuruaren arabera murriztu ahal izango da, kontuan hartuta saio guztirako gehienez ordu biko iraupena dagoela, oro har.
6. Arduradun politikoaren erantzuna, hala badagokio.
7. Ondorioak, hala badagokio.

IV. KAPITULUA ESKATZEKO ESKUBIDEA.

11. artikulua.- Titularrak.

Pertsona guztiek dute udal gobernuari edo bere erakunde autonomoi, euren eskumeneko gaietan, eskaera edo eskabideak egiteko eskubidea, edo udal jardueri buruzko argibideak eskatzeko eskubidea, muga bakarrak legeek ezarritakoak izango direla.

12. artikulua.- Erabiltzeko modua.

Eskaera idatziz egingo da, eta bere benetakotasuna egiaztatzeko aukera ematen duen edozein bitarteko erabilita egin ahal izango da, telematikoa barne. Ez da ezberdintasunik egongo gai horrek eskatzaileari bakarrik eragiten badio edo interes kolektibo edo orokorreko gaia bada.

13. artikulua.- Onartezina izateko arrazoiak.

Udalak ukatu ahal izango du eskabidea tramitera onartzea, arrazoitutako ebazpenaren bitartez, honako kasuren bat gertatzen bada:

- a) Eskaeraren helburua ez bada Udalaren eskumenekoa.
- b) Eskaerak berriazko administrazio-tramitea badu ezarrita. Horrelakoetan, uko egiteko ebazpenak bidezko tramite zehatza eta aplikatu beharreko araudia zehaztuko ditu.
- c) Aurretiaz eduki bereko eskaerak aztertu badira. Horrelakoetan, uko egiteko ebazpenak aurreko eskaeren emaitza zehaztuko du.

14. artikulua.- Geroko tramitazioa.

1. Eskaera tramitera onartu ondoren, eskumena duen organo edo agintaritzak erantzun egin beharko du, eta gehienez hiru hilabeteko

epean jakinarazi beharko du erantzuna, aurkeztu den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

2. Ebazpenak horretarako hartu diren neurriak edo hartzea aurreikusi diren jarduerak azaldu beharko ditu edo, bestela, egindako eskaera aintzat ez hartzeko arrazoiak.
3. Artikulu honetako 1. zenbakian ezarritako epea amaitu eta ebazpenik jakinarazi ez bada, eskaera isiltasunaren bidez gaitzetsi egin dela ulertuko da, administrazio-prozedura erkideari buruzko araudian xedatutakoaren arabera.
4. Kapitulu honetan aurreikusi ez den guztirako, eskatzeko eskubidea arautzen duen araudi nagusian xedatutakoari jarraituko zaio.

V. KAPITULUA HERRI-EKIMENERAKO ESKUBIDEA

15. artikulua.- Edukia.

Herri-ekimenaren bitartez, herritarrek udal eskumeneko eta interes publikoko jardueraren bat egiteko proposa diezaiokete Udalari. Besteak beste, honako ekimen hauek egin daitezke:

- a) Araudi-proiektuak, bere eskumenen eremuetan, zerga-ordenantzak eta prezio publikoen ordenantzak izan ezik.
- b) Erabaki-proposamenak.
- c) Interes publikoko gaietan jarduteko proposamenak, finantziazio-proposamena azalduta, hala badagokio.

16. artikulua.- Legitimazioa.

Ekimen hori udal hauteskundeetan boto aktiboa izateko eskubidea duten Basauriko herritarrek erabili ahal izango dute, udalerriko biztanleen erroldako gutxienez % 10 ordezkatzeko badute.

17. artikulua. Tramitazioa.

1. Eskaera idatziz egingo da, bertan eskatzaileak eta edukia agerrarazi beharko direla. Ordezkarik bat izendatuko dute, eta berarekin egingo dira diligentziak. Argi azaldu beharko da zein den eskatzen den jarduera, zein bitarteko ekonomiko edo giza baliabide jotzen diren beharrezkotzat eta, hala badagokio, zeintzuk diren eskatzaileak ematea aurreikusi dituenak. Herri-kontsulta lokala egiteko proposamena egin ahal izango dute; hori, toki-araubidearen

oinarrizko legeetan eta araudi honetan ezarritako prozedura eta betekizunen bitartez tramitatuko da.

2. Eskabideak aurreko artikuluan ezarritako legitimazio-betekizuna betetzen badu, honela jardungo da:
 - a) Tramitera onartu bezain laster, udal taldeetako eledunei helaraziko zaie idazkia.
 - b) Dagokion arloak horri buruzko txostena egin beharko du.
 - c) Nolanahi ere, Udal Idazkaritzak eskaeraren legezkotasun-txostena egin beharko du. Ekimenak eduki ekonomikoko eskubide eta betebeharrei eragiten badie, Kontu-hartzaitzak egingo du txostena.
 - d) Gai horretan eskumena duen Informazio Batzordeak ekimenari buruzko irizpena emango du. Hala ere, salbuespena izango da premiazko arrazoiak direla-eta zuzenean Udalaren Osoko Bilkurari jakinarazi behar bazaio.
 - e) Udalbatzan eztabaidatu eta bozkatu beharko dira ekimenak, gaiaren arabera dagokion organoak ebatzi ahal izango badu ere.
3. Eskatzaileek Araudi honetan ezarritako betekizunak betetzen ez badituzte edo eduki bereko gaiak ebatzi badira, eskabidea ez onartzeko aukera egongo da, arrazoitutako ebazpenaren bitartez, betiere.
4. Ekimena ez balitz 3 hilabeteko epean ipiniko Osoko Bilkuran aztertzeko, aurkeztu denetik aurrera zenbatzen hasita, eskabidea gaitzetsi egin dela ulertu ahal izango dute eskatzaileek, administrazio-prozedura erkidearen araudian aurreikusitako ondorioetarako.

VI. KAPITULUA

OSOKO BILKURARA AKTIBOKI JOATEKO ESKUBIDEA.

18. artikulua.- Osoko Bilkurari mozioak aurkezteko eskubidea.

1. Herritarren interes kolektiboak ordezkatzeko dituzten udal erakunde, elkarte edo herritar guztiek dute euren intereseko udal gaiei buruzko mozioak aurkezteko eskubidea.
2. Mozioak idatziz aurkeztuko dira Udalaren Erregistro Nagusian, eta azalpena edo justifikazioa eta hartu beharreko erabakiaren proposamena izango dute. Talde politikoetako eledun guztiei bidaliko zaie mozio horren kopia.
3. Alkatetzak mozioen tramitazioa baztertu ahal izango du, Udal Araudi Organikoaren 71.3 artikuluko c) letran ezarritako prozedurari jarraituz.

Baztertzekotan, arrazoitutako ebazpena jakinaraziko zaio aurkeztu duen pertsonari.

4. Mozioa baztertu ez bada, Alkatetzak erabakiko du gai horretan eskumena duen Batzordeko idazkariari helaraziko zaion, bidezko irizpena eman dezan, edo zuzenean helaraziko zaion Osoko Bilkurari.
5. Mozioa tramitatu ostean, Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sartuko da, dagokion Informazio Batzordearen irizpenarekin batera, hala badagokio. Mozioa gai-zerrendan sartu bada, entzunaldia emango zaio proposatu duenari, horrek Alkatetzari eskatu ondoren. Horrela, ordezkari bakar baten bitartez, ahoz azaldu ahal izango du mozioaren eduki eta egokitasunari buruz duen iritzia Alkatetzak adierazitako denboran, gai-zerrendan azaldutako proposamenaren eztabaida eta bozketa egin aurretik. Ondoren egingo diren eztabaida eta bozketan Udalbatzako kideek baino ezin izango dute parte hartu eta, beraz, bertaratu diren ikus-entzuleek eta mozioa proposatu duen pertsonak ezin izango dute parte hartu, Osoko Bilkuraren funtzionamendurako arau orokorrak aplikatuz.
6. Udal Araudi Organikoan Osoko Bilkuraren funtzionamenduari buruz xedatutakoaren arabera eraenduko dira mozioaren eztabaida eta bozketa.

19. artikulua.- Eskaera eta galderak egiteko eskubidea.

1. Herritarrek, elkarteek eta udal erakundeek, era berean, eskaera eta galderak egin ahal izango dizkiete Udalaren gobernu-organoei, eta horiek Udal Araudi Organikoaren 71. artikuluko 6 eta 7. zenbakietan ezarritako helburua izango dute, oro har.
2. Auzo-ekimeneko eskaera eta galderak Udalbatzaren Erregistro Nagusian aurkeztutako idazkiaren bitartez aurkeztuko dira beti.
3. Eskaera eta galderak Osoko Bilkuraren hurrengo batzarrean aztertuko dira, Osoko Bilkura egin baino zazpi astegun lehenago aurkeztu badira, gutxienez. Batzarra egiteko zazpi astegun baino gutxiago falta dela aurkeztuko balitz, eskaera edo galdera hori Osoko Bilkuraren hurrengo batzarrean edo hurrengoan aztertzea erabaki ahal izango du Alkatetzak. Hala eta guztiz ere, Alkatetzak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren eta arrazoitutako ebazpenaren bitartez, auzo-ekimeneko eskaera edo galderaren bat ez onartzeko aukera izango du.
4. Eskaera edo galdera pertsonalak, errespetugabeak edo talde politiko zehatzei egindakoak ez dira onartuko.

5. Eskaera edo galdera egin duenak Osoko Bilkuran entzuna izateko eskubidea izango du. Eskubide hori eraginkorra izan dadin, entzunaldia eman diezaion eskatu beharko dio Alkatetzari, batzarra hasi baino lehen, eta Alkatetzaren iritziz justifikatutako arrazoiren bat badago bakarrik ukatu ahal izango zaio. Baimena emanaz gero, eskaera edo galdera egin duenak bere iritzia azalduko du alkateak adierazitako denboran, bidezko eztabaida egin aurretik. Eztabaidan, egotekotan, Udalbatzako kideek baino ezin izango dute parte hartu eta, beraz, bertaratu diren ikus-entzuleek eta eskaera edo galdera egin duen pertsonak ezin izango dute parte hartu, Osoko Bilkuraren funtzionamendurako arau orokorrak aplikatuz.
6. Auzo eskaerari buruzko eztabaida egin ahal izango da Osoko Bilkuraren batzarrean, baina eztabaida horretatik ez da nahitaez eratorriko erabakiren bat hartzeko beharra; beraz, baliteke Osoko Bilkurak jakinaren ganean geratu dela edo eskaera jasotzat hartu duela baino ez adieraztea.
7. Auzo-ekimeneko galderei horien hartzaileak erantzungo die. Hartzailea alkatea izan ez arren, alkateak berak erantzun ahal izango die.

VII. KAPITULUA UDAL BALIABIDEAK BALIATZEKO ESKUBIDEA.

20. artikulua.- Edukia.

1. Herritar, elkarte edo udal erakunde guztiek dute erabilera orokorreko udal baliabideak baliatzeko eskubidea, duten helburuaren arabera eta muga bakarrak dauden espazio eta denbora eta udal ordenantzetan ezarritakoa direla.
2. Zerbitzu publiko bati atxikitako udal instalazioak barne-araubideko araudietan, udal araudietan edo horien erabilera kudeatzen duten erakunde autonomoen araudietan xedatutakoaren arabera erabiliko dira.
3. Udalak herritar guztiek informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea sustatuko du eta, horretarako, horiek erabiltzeko puntu publikoak eskainiko ditu ekipamendu-sarearen eta udal bulegoen bitartez.

VIII. KAPITULUA HERRI-KONTSULTARAKO ESKUBIDEA.

21. artikulua.- Edukia.

1. Udalak, Alkatetzaren bitartez, Osoko Bilkuraren gehiengo osoaren aldeko botoaz erabakia hartu eta Nazioko Gobernuak baimena eman ondoren, herri-kontsultan galdetu ahal izango ditu udal eskumeneko eta izaera lokaleko gaiak, herritarren interesetarako garrantzi berezia badute, Toki Ogasunari buruzkoak izan ezik.
2. Kontsulta horren emaitza inola ere ez da loteslea izango Udalarentzat.
3. Aurrekoa alde batera utzita, Hiriko Kontseiluak edo Sektore Kontseiluek proposatuta nahiz norbere ekimenez, eta betiere interes publikoak hala gomendatzen badu, Udalak herritarren iritzia bildu ahal izango du inkesta zein iritzi-azterketen bitartez, gaiak jendaurrean azalduz, teknologia berriak erabiliz edo herritarren iritzia jakiteko beste edozein bide erabiliz.

IX. KAPITULUA

HERRITARREN ESKUBIDEEN DEFENTSA ETA IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIOEN ORGANOAK

22. artikulua.- Kexa, iradokizun eta erreklamazioak aurkeztea.

1. Herritar, elkarte edo udal erakunde guztiek jo ahal izango dute iradokizun eta Erreklamazioen Organoarengana, bidegabeko tratua eman diotela edo bere legezko eskubide edo interesak urritu zaizkiola azaltzeko, betiere eskumena duen organoan legez ezarritako prozedura agortu bada.
2. Iradokizun eta erreklamazio guztiek eragingo dute espedientea irekitzea, eta organo horretako titularrak bideratuko du hori.
3. Erreklamazio, kexa edo iradokizunak inola ere ez du administrazio-errekurtsoaren izaera izango, ez eta ekintza zibilak edo lan-ekintzak egin aurreko erreklamazioaren, erreklamazio ekonomiko administratiboaren edo ondare-erantzukizuneko erreklamazioaren izaera ere. Eduki ekonomikoa duten erreklamazioak, irekitako prozeduraren bati buruzkoak edo udal ekintzaren bat berrikusteko helburua dutenak baztertu egingo dira.
4. Kexa, erreklamazioa edo iradokizuna jaso ondoren, onartu ez dela adierazi ahal izango da honako kasu hauetan, arrazoitutako ebazpenaren bitartez:

- a) Legezko interesa dagoela ikusten ez denean.
 - b) Erreklamazio anonimoak direnean. Hori dela eta, telematika bidez bidali direnek aitortutako sinadura elektronikoa eduki beharko dute.
 - c) Asmo txarra edo prozeduraren gehiegizko erabilera dutela nabaritu denean, administrazio-zerbitzuak nahastea eragin badezakete.
 - d) Tramitatuz gero beste pertsona batzuen legezko eskubideei kalteak eragiteko aukera dagoenean.
 - e) Oinarririk ez dutela nabarmena denean.
 - f) Eduki bereko gaiak ebatzi direnean.
 - g) Udal eskumenekoak ez diren gaiak direnean.
 - h) Udal organoen kontrol publikoari buruzkoak direnean.
 - i) Partikularren arteko uneko auziei buruzkoak direnean.
 - j) Prozedura irekita dagoenean edo administrazio-errekurtsoa edo errekurtsio judiziala hasita dagoenean.
5. Kexa tramitera onartzen bada, eragindako zerbitzuaren txostena eskatuko da; 10 eguneko epean egin beharko da txosten hori, egokitzat jotzen den dokumentazio guztia erantsita.
6. Erreklamazio, kexa edo iradokizuna, eragindako zerbitzuaren txostenarekin eta erantsitako dokumentazioarekin batera, hala badagokio, Kexa eta Iradokizunen Organo Bereziari bidaliko zaio, txostena egin dezan eta bidezko gomendioak eman ditzan.

23. artikulua.- Antolaketa eta funtzionamendua.

1. Kexa eta Iradokizunen Organoko titularra udal langilea izango da eta, ahal dela, funtzionarioa. Autonomia izango du udal zerbitzuei dagokienez, eta Modernizazio Arloaren mende egongo da funtzionamendu-mailan, baina ez du hierarkia-mendekotasunik izango bere zereginak garatzeko.
2. Honakoak dira Kexa eta Iradokizunen Organoak dituen helburuak:
 - a) Herritarren kexa, iradokizun eta erreklamazioak jaso eta bideratzea.
 - b) Herritarrek proposatutako ekimen eta aukerak aztertzea.
 - c) Udal Administrazioak izan ditzakeen urritasunak antzeman eta behar bezala zuzentzeko proposamenak egitea.
 - d) Ahal den neurrian, Basauriko herritar guztien beharrezkoak bete eta eraginkortasunik handiena lortzea baliabide publikoen kudeaketan.

3. Organo Bereziak bidezko informazio guztia bildu ahal izango du administrazio-zerbitzuetan. Udalbatzaren zerbitzura dauden langile guztiek nahitaez eman beharko diote eskatutako lankidetzara organo horri.
4. Halaber, Kexa eta Iradokizunen Organoak, erreklamazio-egileari eta eragindako zerbitzuko arduradunari edo bidezkotzat jotzen duen beste edonori entzunaldia ematea erabaki ahal izango du.
5. Kexa eta Iradokizunen Organo Bereziak, gaia aztertu ondoren, ondorioak azaldu (betiere arrazoiak azalduta) eta eskumena duen udal organoari helaraziko dizkio, kontuan har ditzan. Ondorio horiek ez dira lotesleak izango. Erreklamazio, kexa edo iradokizunak eragindako organoari jakinaraziko zaizkio, alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan 10 eguneko epean.
6. Organo Bereziaren ondorioak eta eragindako organoaren alegazioak, horrelakorik egotekotan, Udalaren Osoko Bilkurari eta erreklamazio-egileari jakinaraziko zaizkie.

24. artikulua.- Ordezko eskubidea.

Organo Bereziaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko gainerako gaiei dagokienez, indarrean dagoen Udal Araudi Organikoan xedatutakoari jarraituko zaio.

II. TITULUA ELKARTEGINTZA SUSTATZEA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

25. artikulua- Helburua.

Titulu honen helburua da Udalak herritar erakundeekin izango dituen harremanen araubide juridikoa arautzea, baita horien eskubideak, Herritar Erakundeen Udal Fitxategia eta horren ondorioak arautzea ere.

26. artikulua.- Definizioak.

1. Araudi honen ondorioetarako, herritar erakundeak dira legez osatutako elkarte edo talde guztiak, indarrean dagoen legeriaren arabera osatuak, auzotarren interes orokor edo sektorialak defendatzea helburu dutenak, interes hori dena delakoa izanda ere: ekonomikoa, soziala, kulturala, zientifikoa, hezitzailea, aisiakoa, gazteriarekin lotutakoa edo antzekoa.

2. Halaber, talde egonkorrak ere Herritar Erakunde bezala inskribatu ahal izango dira, honakoak hartuko direla talde egonkortzat: hiru pertsona edo gehiagoko taldeak, baliabide ekonomiko edota pertsonalak elkarrekin ipintzeko konpromisoa dutenak, irabazi-asmorik gabe, interes orokorreko helbururen bat lortzeko, esaterako lagunarteak, koadrilak, etab., nahiz eta Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan inskribatuta ez egon.

27. artikulua.- Aplikazio-eremua.

Araudi honen aplikazio-eremuan daude aurreko artikuluan definitutako elkarteak edo taldeak, ondorengoak izan ezik:

- a) Merkataritza-zuzenbidearen mendeko erakundeak eta, oro har, helburu nagusia etekin ekonomikoak izatea dutenak, gero etekin horiek bazkideen artean banatzeko.
- b) Alderdi edo talde politikoak, enpresa-elkarteak eta erakunde sindikalak.
- c) Aurreko letran aipatutako erakundeekin lotura duten egoitza sozialak edo lokalak dituzten elkarteak edo erakundeak.
- d) Elkarte edo erakunde erlijiosoak.
- e) Profesionalen elkargoak.
- f) Kirol-talde eta kirol-elkarteak.
- g) Edozein administrazio publikoren mendeko erakunde autonomoak edo merkataritza-sozietateak.

28. artikulua.- Printzipio nagusiak.

1. Elkarteek eta herritar erakundeek askatasun osoz eta beraien borondatez emango dute izena udal fitxategian. Ezin izango da inolako elkarte, talde edo erakunderik derrigortu erregistro horretan izena ematera, ezta bertan egotera ere.
2. Elkarte edo talde bat kidea baldin bada, egoera hori ez da, inondik eta inora, Udalak baztertzeko edo aldeko edo mesedeko tratua emateko arrazoia izango.

29. artikulua.- Araubide juridikoa.

Honakoek arautzen dituzte elkarteak eta herritar erakundeak:

- a) Izaeraren arabera aplikatu dakiekeen legedi orokorrak, barne-estatutuek eta gobernu-organoek balioz onartutako erabakiek arautzen dituzte osaketa, izena ematea eta barne araudia.
- b) Gainerakoekin izango dituzten harremanak, aldiz, ezar dakiekeen araudi zibilak arautzen ditu.

- c) Udalarekin izango dituzten harremanak, araudi honetako eta Udal Araudi Organikoko xedapenek arautzen dituzte.

II. kapitulua HERRITAR ERAKUNDEEN ESKUBIDEAK.

30. artikulua.- Eskubideak.

1. Elkarteen Udal Erregistroan inskribatutako herritar elkarteek honako eskubideak izango dituzte, indarrean dagoen Udal Araudi Organikoan eta araudi honetan ezarritako terminoetan:
 - a) Osoko Bilkuran mozioak, galderak eta eskaerak aurkeztekoa.
 - b) Osoko bilkuren gai-zerrenda jasotzea, hala eskatuz gero, eta ahalik eta arinen.
 - c) Dagozkien gaietako informazio-batzordeetan edo batzorde teknikoetan entzunak izatekoa.
 - d) Eskabideak egitekoa, eskatzeko eskubidea erabiliz.
 - e) Entzunaldi Publikoa izatekoa eta kudeaketa-erantzukizuna duten Udalbatzako kideek zuzenean eta banan-banan entzutekoa.
 - f) Erabilera orokorreko udal baliabideak baliatzekoa, duten xedearen arabera.
 - g) Herri-ekimenerakoa.
 - h) Araudi honetan berariaz ezarriko diren beste guztiak, herritarren partaidetza errazteko direnak.
2. Gainera, elkarte horiek eskubide hauek izango dituzte Araudi honetan ezarritako terminoetan:
 - a) Diru-laguntzak jasotzekoa.
 - b) Udalaren lokalak eta komunikabideak erabiltzekoa.
 - c) Udalaren argitalpenak jasotzekoa.

31. artikulua.- Diru-laguntzak.

1. Udalaren bitartekoek ahal duten neurrian emango dira diru-laguntzak, indarrean dagoen ordenantza orokorrean diru-laguntzak emateko xedatutakoaren arabera, oinarri orokorretan xedatutakoaren arabera eta, dagokionean, Osoko Bilkurak onartutako partikularren arabera, baita aurrekontua burutzeko udal arauan ezarritako irizpideen arabera ere.
2. Horretarako, Udalak bere aurrekontuetan urtero izendatuko du gutxieneko bat dagokion aurrekontu partidano edo partidetan Udaleko organo eskudunek estimatutako udal aukeren arabera.

3. Diru-laguntzak emateko irizpideak honakoak izango dira: herritar erakundeen ordezkagaitasuna, helburuek herriarentzat edo herritarrentzat duten interes- edo onura-maila, gaitasun ekonomiko autonomia, beste erakunde publiko edo pribatuetatik jasotzen dituzten laguntzak eta indarrean dauden udal araudietan ezarritakoak.
4. Udal aurrekontuetatik diru-laguntzak jaso dituztenek nahitaez justifikatu beharko dituzte jasotako fondoek erabilerak diru-laguntza bakoitzeko araudian ageri den epean.
5. Diru-laguntza jaso izanak ez die diruz lagundutakoei inolako eskubide subjektiborik emango, etorkizunean beste diru-laguntza batzuk jasotzeko.
6. Ezin izango dira diruz lagundu funtzionamendu demokratikoa bermatzen ez duten erakundeak, kideekin aldizka hauteskundeak izaten ez dituztenak edo beraien helburu soziala betetzen ez dutenak, Udalak horren berri baldin badu.

32. artikulua.- Udalaren lokalak eta komunikabideak erabiltzea.

1. Udalaren lokalak erabiltzeko, irabazi-asmorik gabeko elkarteei udalaren lokalak prekarioan lagatzeko oinarriak arautzeko indarrean dagoen ordenantza arautzailean xedatutakoa hartuko da kontuan. Dena dela, erabiltzaileek modu arduratsuan erabiliko dute lokala eta erakundea izango da instalazioetan gertatutako narriaduren erantzulea.
2. Udal komunikabideak erabiltzeko ez da mugarik egongo, non eta batek baino gehiagok ez duen aldi berean erabili nahi; horrelakoetan Udalak izango du erabiltzeko lehentasuna.
3. Udal bitarteko publikoak erabiltzeko, horretarako ezarrita dauden arauen arabera egingo da, eta horrelakorik ez balego, Udalari idatziz eskatu beharko zaio, aldeztu aurretik, dagokien zerbitzuek ezarritako epean.
4. Udalak abala edo bermea ezarri ahal izango die erabiltzaileei, udal bitartekoak egoki erabiliko dituztela ziurtatzeko.

33. artikulua.- Argitalpenak jasotzea.

Herritar Erakundeek Udalaren argitalpenak, aldizkakoak edo bestelakoak, jasotzeko eskubidea dute; betiere, erakundearentzat interesgarria baldin bada, bere helburu sozialak kontuan izanda. Hori doan izango da, Udaleko organo eskudunek berariaz hala adierazten dutenean.

III. KAPITULUA

UDAL ONURA PUBLIKOKO ERAKUNDEAK

34. artikulua.- Definizioa.

Onura publikoko erakundeak dira beraien estatutuetoako helburuak alor honetakoak dituztenak: gizalegea, hezkuntza, zientzia, kultura, kirola, osasuna, gizaldekua, soziala, garapenerako lankidetzak, haurren babesa, emakumearen eta gizonen arteko berdintasunaren eta tolerantziaren sustapena, ingurumenaren zaintza, ekonomia edo ikerketaren sustapena, euskararen sustapena, boluntariotzaren sustapena, kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa edo Legeetan aurreikusitako udal eskumenen osagarria izango den beste edozein; jardura jarraitua garatzen badute auzo-elkartegintzan eta herritarren partaidetza sustatzeko interes publikoko gaietan.

35. artikulua.- Aitortzeko prozedura.

Honakoa izango da erakundea udal onura publikoko aitortzeko prozedura:

1. Interesa duen erakundearen ordezkariaren idatziarekin hasiko da, eta honakoak bidaliko dira idazki horrekin batera:
 - a) Eskaera oinarritzeko zergatiak.
 - b) Herritar Erakundearen Udala Erregistroan inskribatzeko datuak eta elkartearen estatutuak.
 - c) Eskabidea egin aurreko bi urteetan egindako jardueren memoria.
 - d) Kide-kopuruari buruzko egiaztagiria.
 - e) Erakundearen zerbitzu eta jardueren onuradunak diren pertsonen kopuru eta ezaugarriak, dituzten giza baliabideak eta bitarteko materialak eta eskuratu nahi den aitorpena behar bezala balioztatzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein informazio.
2. Eskabide horri buruzko informazioa emango dute gai horretan eskumena duten atalek; informazio hori dagozkion prozedurazko alderdietara (aurkeztutako agiriak zuzendu, ezarritako baldintzak betetzen diren ala ez, etab.) eta legeletara mugatuko da.
3. Espedientea dagokion informazio-batzordeari igorriko zaio eta honek dagokion agindua – proposamena aurkeztuko du, Udalaren Osoko Bilkurak ebatz dezan. Bere irizpenean batzordeak eskabidea baloratuko du aurreko atalean adierazitako irizpideen arabera.

4. Udal onura publikoko aitortzea egokia den baloratzeko funtsezko irizpideak honakoak izango dira:
 - a) Basauriko herritarrentzat interes publikoko eta sozialekoa izatea.
 - b) Erakundearen helburu soziala eta egindako jarduerak.
 - c) Ordezlagaitasun-maila.
 - d) Udal intereseko jardueretan duten partaidetza-maila.
 - e) Aurrekari historikoak edota erakundeak udalerrian duen ibilbidea.
5. Udalaren Osoko Bilkurak erabakiko du erakundea onura publikoko aitortuko den. Horrelakotzat aitortzekotan, administrazioaren kabuz sartuko da Udal Fitxategian, eta horren publizitatea egingo da Udalaren web gunean.

36. artikulua.- Eskubideak.

Onura publikoko aitortzeak kasu bakoitzean Udalak zehaztuko dituen onurak izango ditu, hala nola:

- a) Bere dokumentu guztietan *“Basauriko Udalak onura publikoko aitortua”* aipamena erabiltzea.
- b) Izaera fiskaleko salbuespenak, hobariak eta bestelako onurak, denak indarrean dagoen legediaren arabera adostuta.
- c) Bere jarduerarekin lotura zuzena duten xedapen orokorrak egitean entzunak izatea, baita jarduera horientzat garrantzitsuak diren programak egitean ere.
- d) Diru-laguntzak banatzeko lehentasuna.
- e) Toki-administrazioaren laguntza teknikoa eta aholkularitza jasotzea.

37. artikulua.- Betebeharrak.

1. Honakoak izango dira onura publikoko aitortutako erakundeen betebeharrak:
 - a) Urteko kuotak aurkeztu beharko ditu urtero Udalean, gehienez hiru hilabeteko epean, amaitu denetik aurrera zenbatzen hasita. Hala badagokio, jaso diren udal fondo publikoen aplikazioa justifikatu beharko da. Halaber, aurreko urtean egindako jarduerak deskribatzen dituen memoria ere aurkeztu beharko da.
 - b) Basauriko Udalak eskatutako txosten eta dokumentazioak eman beharko ditu, bere helburuak betetzeko egin dituen jardueri buruzkoak badira.
 - c) Datuak eguneratuta izan beharko ditu Udal Fitxategian.
2. Onura publikoko aitortpena baliogabetu egin ahal izango da, bai Herritar Erakundeak bere betebeharrak behin eta berriro eta modu larrian bete ez dituelako, bai aitortpena egitea eragin zuten

inguruabarrak aldatu direlako. Horrelakoetan, erakunde interesdunari entzunaldia emango dion espedientea tramitatuko da.

IV. KAPITULUA HERRITAR ERAKUNDEEN UDAL FITXATEGIA

38. artikulua.- Erregistroa sortzea.

1. Herritar Erakundeen Udal Fitxategia sortu da, Herritarrentzako Arreta eta Modernizazio Arloak eramango duena.
2. Udal fitxategiak ez du legez ezarritako erregistroekin zerikusirik; izaera orokorreko elkarteak, erakundeak eta taldeak eratzeko eta aitortzeko erregistroekin, alegia.
3. Helburu bi ditu Herritar Erakundeen Udal Fitxategiak:
 - a) Alde batetik, inskribatutako erakundeak aintzat hartu eta araudi honek nahiz indarrean dagoen legediak ematen dizkien eskubideez baliatzeko duten aukera bermatzea, udal eremuan.
 - b) Eta bestetik, Udalak jakin ahal izatea zenbat erakunde dauden, zein helburu, ordezkagaitasun, interes eta onura publiko duten, elkartegintza sustatzeko udal politika zuzena egin ahal izateko.

39. artikulua.- Inskribatzearen ondorioak.

1. Araudi honetan edo Udal Araudi Organikoan herritar erakundeei aitortutako eskubideak Herritar Erakundeen Udal Fitxategian inskribatuta daudenek bakarrik eskatu ahal izango dituzte.
2. Udal administrazioak, gainera, udalaz gaindiko elkarte orori aitortu ahal izango dio, bere iritziz interes publiko nabarmena baldin badu, Araudi honetan inskribatutako erakundeei aitortutako eskubideetako edozein, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan xedatutakoaren arabera.

45. artikulua.- Inskribatzeko eskubidearen titularrak.

Elkarteen Udal Erregistroan inskribatu ahal izango dute 26. artikuluan definitutakoek eta 27. artikuluan kanpora utzita ez daudenek.

41. artikulua.- Inskribatzeko prozedura.

Herritar Erakundeen Udal Fitxategian inskribatzeko eskabideak Udal Erregistroan aurkeztuko dira. Eskabidearekin batera, agiri hauek ere aurkeztuko dira, originalak edo Idazkaritza Nagusiak erkatutako kopiak (Araudi hau indarrean jarri denean inskribatutakoak salbu):

- a) Erakundearen estatutuak edo indarrean dituzten funtzionamendu arauak. Beste Erregistro Publiko batzuetan inskribatuta ez dauden taldeen kasuan, kide guztiek sinatutako adierazpen arduratsua, honakoak zehaztuz: erakundearen sorrera, bere helburuak, gobernu-organoak eta taldea ordezkatzeko duen pertsona fisiko arduraduna, bere datu pertsonalekin batera.
- b) Inskribatuta egotekotan, dagokion erregistro publikoan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri edo diligentzia, Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan edo antzekoren batean duen inskripzio-zenbakia zehaztuta.
- c) Zuzendaritza karguak dituzten pertsona fisikoak, euren helbideak eta harremanetarako telefono-zenbakiak egiaztatzeko akta edo ziurtagiria. Inskribatu gabe dauden taldeen kasuan, arduradunaren datu pertsonalak eta harremanetarako telefono-zenbakia.
- d) Erakundearen helbidea eta, hala badagokio, egoitza soziala(k).
- e) Inskribatutako erakundearen IFZ. Inskribatu gabeko taldeen kasuan, arduradunaren IFZ.
- f) Jardueren programa.
- g) Eskabidea egin denean duten kide-kopuruaren ziurtagiria.
- h) Jardueraren lurralde-eremua.
- i) Erakundearen urteko aurrekontua.

42. artikulua.- Epea.

Agiriak zuzen egonez gero, izena emateko eskabidea egin zenetik hamabost eguneko epean jakinaraziko dio Udalak erakunde interesdunari bere inskripzio-zenbakia. Une horretatik aurrera, alta emanda duela ulertuko da, ondorio guztietarako.

43. artikulua.- Aldaketak.

1. Inskribatutako elkarteek datuak aldatuz gero, erregistroari jakinarazi beharko diote, aldatu eta hilabeteko epean. Aurrekontua eta urteko jardueren programa urtarrilean jakinaraziko da; halaber, kide-kopuruaren eguneratutako egiaztatzea ere emango da.
2. Betebehar horiek behin eta berriro bete gabe gelditzen badira eta Udal Administrazioak horri buruz egindako eskariei kasurik egiten ez bazaie, Alkatetzak fitxategian baja emateko ebazpena egin dezake.
3. Baja izan daiteke:

- a) Borondatezkoa, elkarteak eskatu badu, eta bertako ordezkari legalak formulatu beharko du.
- b) Administrazioaren kabuzkoa. Nolanahi ere, erakundea desegin bada edo erakundeak udalarekin zituen betebeharrak bete ez badira gertatuko da hori, aurreko zenbakian xedatutakoaren arabera.

44. artikulua.- Publikotasuna.

- 1. Herritar Erakundeen Udal Fitxategia publikoa da. Pertsona edo erakunde publiko edo pribatu orok du Herritar Erakundeen Udal Fitxategia kontsultatzeko eskubidea, legeak babestutako datu pertsonalak izan ezik.
- 2. Udalaren web gunean, inskribatutako erakundeen eta horien datuen zerrenda zehatza azalduko da, Legeak babestutako datuak izan ezik.
- 3. Fitxategia Herritarrentzako Arreta Arloan kontsultatu ahal izango da, eskatzaileak aukeratutako bitarteko hauetakoren baten bidez:
 - a) Dagozkien idazpenen kopia arrunten bidez.
 - b) Programa informatikoa erakundearen bidez eta, hala badagokio, bertan dagoen informazioa inprimatzearen bidez.
 - c) Edukiaren ziurtagiria igortzearen bidez, datozkien tasak aurrez ordaindu ondoren.
 - d) Idazpenei buruzko agiriak erkatze bidez.

45. artikulua.- Fitxategia eramateko modua.

Herritar Erakundeen Udal Fitxategia euskarri informatikoan kudeatuko da. Hala ere, euskarri fisikoan dokumentatuko da, urte bakoitzeko urtarilaren 1ean indarrean dauden idazpen guztiak azalduta. Horiek urtero baliozkotuko dira, eskumena duen funtzionarioak egindako diligentzia bidez, eta liburu bakoitzaren hasieran orri-kopurua, idazpenak zer eperi dagozkion eta idazpenen hasierako eta amaierako zenbakiak adieraziko dira.

III. TITULUA **PARTAIDETZA-ORGANOAK**

I. KAPITULUA **XEDAPEN OROKORRAK**

46. artikulua.- Definizioa.

1. Udalbatzaren lankidetzak, deliberamendu eta aholkularitzako organoak dira, kontsulta-organok, eta proposamenak eta iradokizunak egiteko gaitasuna dute. Gizarte-eragileek, udal taldeek eta erakundeek osatzen dituzte eta, horien bitartez, eraginkor egiten da auzo-taldeak interes publiko lokaletako gaien kudeaketan parte hartu eta horietara hurbiltzea. Hain zuzen ere, ondoko zereginak egingo dituzte:
 - a) Euren gai-eremuko ekimen, iradokizun eta proposamenak aurkeztea, dagozkien arlo, sail eta udal erakundeek azter ditzaten.
 - b) Lankidetzak eta aholkularitzak ematea euren jarduera-sektoreko gaiarekin zerikusia duten azterlan, programa eta proiektuak aurkeztean.
 - c) Udal informazioa jaso eta zerikusia duten herritar erakundeei jakinarazi eta hedatzea.
2. Horiek sortzea hautazkoa da. Araudi honetan aurreikusitakoez gain, beste organo batzuk ere egon daitezke, betiere Osoko Bilkurak gehiengo osoaren aldeko botoaz hala erabaki badu.

47. artikulua.- Osaketa eta zerrenda.

1. Herritarren partaidetza, gutxienez, hurrengo organoen bitartez antolatuko da:
 - a) Hiriko Kontseilua.
 - b) Partaidetzarako Sektore Kontseiluak eta, horien artean, honakoak:
 - b.1.- Iraunkortasun Kontseilua edo Foroa.
 - b.2.- Adineko Pertsonen Kontseilua.
 - b.3.- Berdintasun Kontseilua.
 - b.4.- Udal Plangintzako Aholku Batzordea.
2. Aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera, herritarren partaidetzarako organoren bateko kideren bat herritar erakunde, elkarte, federazio, konfederazio, batasun edo antzekoen artetik aukeratu behar bada, horiexek izango dira, elkarren artean ados ipinita, izendapena egin beharko dutenak. Adostasunik lortu ezean, hurrengo paragrafoan aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio.
3. Aurreko paragrafoan aipatu den adostasuna lortu ez duten herritar erakunde, elkarte, federazio, konfederazio, batasun edo antzekoek, horietako bakoitzak, hautagai bat proposatu beharko du, une horretan partaidetzaren alorrean eskumena duen arloari bidalitako idazkiaren bitartez. Hamabost eguneko epea izango dute horretarako, arlo

horrek deialdia jendaurrean azaltzen duenetik aurrera zenbatzen hasita. Idazki horretan erakundearen izena eta hautagai izendatutako pertsonaren izen-abizenak adieraziko dira; halaber, proposatu duen erakundearen ordezkariak eta hautagai izendatutako pertsonak (hautagaitza onartuz) sinatu beharko dute. Hautagaien zerrenda erakundearen iragarki-oholean azalduko da, hautagaitzarako adierazitako eguna baino hiru egun lehenago. Arloak adierazitako egunean zozketa egingo da, ekitaldi publikoan. Zozketaren emaitza aktan jaso eta interesdunei jakinaraziko zaie.

4. Kontseilu Mistoak osatzean, bi sexuen arteko parekotasuna gorde beharko da, ahal den neurrian; horrela, bada, horietako bakoitzaren % 40 ordezkatuko da.

48. artikulua.- Kontseiluen txostenen segimendu eta kanalizazioa.

1. Herritarren partaidetzarako alorrean eskumena duen arloak Hiriko Kontseilutik eta Sektore Kontseiluetatik etorritako informazio guztia kanalizatuko du, eta partaidetza-organoetan hartutako erabakien segimendua egingo du.
2. Arlo horren Partaidetza Memoria egingo du urtero, Hiriko Kontseiluari, udalaren kudeaketa-organoei eta udal taldeetako eledunei helaraziko zaiena.

II. KAPITULUA. HIRIKO KONTSEILUA

49. artikulua.- Kontzeptua.

Kide anitzeko organoa da, kontsulta- eta partaidetza-organoa, eta ekonomia, gizarte eta auzotarren erakunde adierazgarrienetako ordezkariak osatzen dute. Bertan, Basauriko udalerrri osoari eragiten dioten jarduerak edota barruti bateko edo batzuetako problematika orokorrak aztertu eta koordinatzen dira.

50. artikulua.- Zereginak:

Honakoak dira Hiriko Kontseiluaren berariazko zereginak:

1. Sektore Kontseilu baten eskumenen artean ez dauden plan orokorrak aurkeztu eta horien berri ematea.
2. Azpiegitura, ingurune, zirkulazio, segurtasun edo ekipamenduen baldintzak eta, oro har, hiri osoan eta auzo bakoitzean zerbitzuak emateko baldintzak hobetzeko eta arazoak konpontzeko ekimen, iradokizun eta kexen berri eman eta proposamenak egitea.

3. Udalaren Jarduera Plana, ordenantzak eta Sektore Kontseilu baten eskumenen artean ez dauden beste xedapen orokor batzuek zer dioten jakin eta eztabaidatzea.
4. Udal kudeaketa eta politikaren ildo nagusiei buruzko aholkularitza ematea Udalbatzari.
5. Aurrekontu Nagusien aurreproiektuaren eta hori burutzearen ondoriozko emaitzen berri izatea.
6. Udalerrri osoan edo bertako barruti edo auzoren batean entzunaldi publikoak egitea proposatzea.
7. Partaidetza-prozesu zehatzak egitea proposatzea.
8. Herri-kontsultak edo herritar kontseiluetarako deialdiak egitea proposatzea.
9. Hiriarentzat interesgarriak diren gaiei buruzko azterlanak egitea proposatzea eta horien emaitzei buruzko eztabaidak sustatzea.
10. Lankidetzak ematea Udalak neurri, jarduera eta zerbitzuak abiaraztean.
11. Bizikidetzak baketsuari eragiten dioten arazoak aztertu eta datu eta informazioak ematea, eta arazok konpontzeko proposamenak aurkeztea.
12. Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko beste edozein, Kontseiluan ezarri badira.

51. artikulua.- Antolaketa.

1. Batzordeburua: Alkatetza edo eskuordetutako zinegotzia izango da Hiriko Kontseiluko burua.
2. Epaimahaikideak:
 - 3 pertsona, udalerriko enpresa handiak ordezkatzeko. Horrelakotzat hartuko dira urtean 2.000.000 € baino gehiago fakturatzen dutenak edo 50 langile baino gehiago dituztenak.
 - Pertsona bat, udalerriko enpresa ertain eta txikiak ordezkatzeko.
 - Pertsona bat, Merkatarien Elkarteak ordezkatzeko.
 - Pertsona bat, elkarte ekologistak ordezkatzeko.
 - Pertsona bat, emakumeen elkarteak ordezkatzeko.
 - Pertsona 2, ordezkartzaren portzentaia handiena duten erakunde sindikalak ordezkatzeko.
 - Pertsona bat, estatu-mailan erakusgarrien diren sindikatuak ordezkatzeko.
 - Pertsona bat, autonomia-mailan erakusgarrien diren sindikatuak ordezkatzeko.
 - Pertsona bat, auzo-elkarteak ordezkatzeko. Auzo edo barruti zehatzen bateko arazoa aztertuko balitz, auzo edo barruti horretako auzo-elkarteak izendatutako ordezkariak ere osatuko du Kontseilua.
 - Beste talde batzuetako ordezkariak, aztertuko diren plan edo programa zehatzen arabera, Burutzak nahi beste.

3. Idazkaritza: Herritarren partaidetzarako alorrean eskumena duen arloak beteko ditu Hiriko Kontseiluaren Idazkaritzaren lanak, hitza bai, baina proposamen-gaitasunik gabe.
4. Halaber, Alkatetzak edo epaimahaikideek eskatuta, Udalbatzako edozein kide edo Udaleko edozein langile tekniko joan ahal izango da, hitza bai, baina proposamen-gaitasunik gabe.
5. Era berean, alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bat ere bertaratu ahalko da, hitza bai, baina proposamen-gaitasunik gabe.

III. KAPITULUA.

IRAUNKORTASUN KONTSEILUA

52. artikulua.- Edukia.

Ingurumen naturala eta hiriko ingurumena zaindu, defendatu eta babesteko eta garapen iraunkorra bultzatzeko helburua duten herritar erakundeen berri-emate, proposamen eta partaidetzarako kontsulta-organo izateko sortu da.

53. artikulua.- Berariazko zereginak:

Honakoak dira Iraunkortasun Kontseiluaren berariazko zereginak:

1. Ingurumena eta iraunkortasuna bultzatzeko ekimen, iradokizun eta proposamenak Udalbatzari aurkeztu eta horien berri ematea.
2. Tokiko Agenda 21 izenekoaren barruan dauden plan eta programei buruzko proposamen eta iradokizunak egitea.
3. Lankidetzaren ematea ingurunea zaintzea erraztu eta narriatzea saihesten duten herritarren portaerak sustatzeko udal programa, jarduerak eta neurriak abiaraztean.
4. Lankidetzaren ematea herritarrak euren inguruneari buruz kontzientziatu eta solidarioak izan daitezen egindako kanpaina eta programa publikoak diseinatu eta ezartzean.
5. Helburu horiek lortzeko beste edozein, Kontseiluan ezarri badira.

54. artikulua.- Antolaketa:

1. Batzordeburua: Alkatetza edo ingurumen-alorrean eskumena duen zinegotzia izango da Ingurumen Kontseiluko burua.

2. Epaimahaikideak:

- Pertsona bat, udalerriko enpresa handiak ordezkatzeko. Horrelakotzat hartuko dira urtean 2.000.000 € baino gehiago fakturatzeko dutenak edo 50 langile baino gehiago dituztenak.
- Pertsona bat, udalerriko enpresa ertain eta txikiak ordezkatzeko.
- Pertsona bat, bere jardueraren Kontseiluaren sektore-eremuan garatzen duen elkarte edota herritar erakunde bakoitzeko, ingurumeneko elkarte edo erakunde ekologista bakoitzeko eta eremu horrekin lotutako talde edo atalak eratuta dituzten elkarte edota herritar erakunde bakoitzeko.
- Pertsona bat, auzo-elkarteak ordezkatzeko.
- Beste talde batzuetako ordezkariak, aztertuko diren plan edo programa zehatzen arabera, Burutzak nahi beste.

3. Idazkaritza: Ingurumeneko Udal Sailak / Ingurumen eta Agenda 21eko teknikariak beteko ditu Kontseiluaren Idazkaritzaren lanak.

4. Halaber, Alkatetzak edo epaimahaikideek eskatuta, Udalbatzako edozein kide edo Udaleko edozein langile tekniko joan ahal izango da, hitza bai, baina proposamen-gaitasunik gabe.

5. Era berean, alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bat ere bertaratu ahalko da, hitza bai, baina proposamen-gaitasunik gabe.

IV. KAPITULUA

ADINEKO PERTSONEN KONTSEILUA

55. artikulua.- Edukia.

Adineko pertsonen bizi-kalitatea oro har hobetzeko helburua duten elkarteen eta herritar erakundeen berri-emate, proposamen eta partaidetzarako kontsulta-organo izateko sortu da.

56. artikulua.- Berariazko zereginak:

Honakoak dira Adineko Pertsonen Kontseiluaren berariazko zereginak:

1. Adineko herritarren osasun, segurtasun, ostatu, okupazio eta laguntzaren baldintzak mantendu eta hobetzeko ekimen, iradokizun eta proposamenak Udalbatzari aurkeztu eta horien berri ematea.
2. Lankidetzaren ematea adineko pertsonen segurtasun eta erosotasuna babestu eta laguntzeko udal programa, jarduerak eta neurriak abiaraztean.

3. Lankidetzaren ematea arriskuak saihestu eta nor bere burua babesteko kanpaina eta programa publikoak diseinatu eta ezartzean.
4. Helburu horiek lortzeko beste edozein, Kontseiluan ezarri badira.

57. artikulua.- Antolaketa:

1. Batzordeburua: Alkatetza edo adineko pertsonak laguntzearen alorrean eskumena duen zinegotzia izango da Adineko Pertsonen Kontseiluko burua.
2. Epaimahaikideak:
 - Pertsona bat, bere jardura Kontseiluaren sektore-eremuan garatzen duen herritar erakunde bakoitzeko edota erretiratuen elkarte eta erretiratuen etxe bakoitzeko.
 - Pertsona bat, alargunen elkarte edo taldeak ordezkatzeko.
 - Pertsona bat, bere jardura adineko pertsonen edo hirugarren adineko pertsonen arreta edo zerbitzuarekin lotura duen erakunde bakoitzeko.
3. Idazkaritza: Gizartekintza alorrean eskumenak dituen Udal Sailak beteko ditu Kontseiluaren Idazkaritzaren lanak.
4. Halaber, Alkatetzak edo epaimahaikideek eskatuta, Udalbatzako edozein kide edo Udaleko edozein langile tekniko joan ahal izango da, hitza bai, baina proposamen-gaitasunik gabe.
5. Era berean, alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bat ere bertaratu ahalko da, hitza bai, baina proposamen-gaitasunik gabe.

V. KAPITULUA
BERDINTASUNERAKO KONTSEILUA

58. artikulua.- Edukia.

Emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko, desberdintasunari aurrea hartzeko, eta emakume eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra saihesten duten oztopoak kentzeko helburua duten elkarten eta herritar erakundeen berri-emate, proposamen eta partaidetzarako kontsulta-organo izateko sortu da.

59. artikulua.- Berriazko zereginak:

Honakoak dira Berdintasun Kontseiluaren berriazko zereginak:

1. Sexu bien arteko berdintasuna sustatu eta bultzatzeko eta emakumeen politika, kultura, ekonomia eta gizartearen alorreko

bizitzan parte hartzeko ekimen, iradokizun eta proposamenak Udalbatzari aurkeztu eta horien berri ematea.

2. Lankidetzaren ematea emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunari aurrea hartu eta generoaren gizarte-sistemaren ondorio diren diskriminazio-egoerak ahuldu edo zuzentzeko aukera emango duten udal programa, jarduerak eta neurriak abiaraztean.
3. Lankidetzaren ematea sexuen arabera balio, jarrera, jokabide eta rola baztertuta, pertsonen garapen integrala ahalbidetuko duen mentalitate-aldaketari buruz herritarrak kontzientziatzeko kanpaina eta programa publikoak diseinatu eta ezartzean.
4. Emakumeek berriazko esku-hartzea duten udal jarduerak-programak proposatu eta horien berri ematea.
5. Osoko Bilkurak onetsiko duen Aukera Berdintasunerako Udal Planaren berri ematea eta hori betetzeaz arduratzea.
6. Udal politikari dagokionez, emakumeek Basaurin bizi duten egoerarekin lotuta, pertsonen edo gizarte-erakundeek egindako salaketa eta ekimen guztiak bildu eta bideratzea.
7. Helburu horiek lortzeko beste edozein, Kontseiluan ezarri badira.

60. artikulua.- Antolaketa:

1. Batzordeburua: Alkatetza edo Berdintasun alorrean eskumena duen zinegotzia.
2. Epaimahaikideak:
 - Pertsona bat, bere jarduerak nagusia alor horretan garatzen duen herritar erakunde bakoitzeko edota emakumeen elkarte bakoitzeko.
3. Idazkaritza: Berdintasun Arloak beteko ditu Kontseiluaren Idazkaritzaren lanak.
4. Halaber, Alkatetzak edo epaimahaikideek eskatuta, Udalbatzako edozein kide edo Udaleko edozein langile tekniko joan ahal izango da, hitza bai, baina proposamen-gaitasunik gabe.
5. Era berean, alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bat ere bertaratu ahal da, hitza bai, baina proposamen-gaitasunik gabe.

VI. KAPITULUA
UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEA

61. artikulua.- Edukia.

Udal Plangintzako Aholku Batzordea herritarrek hirigintzako plangintzaren alorrean duten partaidetza baieztatzen duen kontsulta-organoa da, eta Basauriko Udalak onetsitako berariazko araudiak eraentzen du.

VII. KAPITULUA
PARTAIDETZA-ORGANOEN FUNTZIONAMENDUA

62. artikulua.- Agintaldia

Hiriko Kontseilua legegintzaldiaren hasieran eratuko da, eta hori amaitu arte iraungo du bere agintaldiak. Lau urtean behin berritu beharko da, legegintzaldi bakoitzaren hasieran.

63. artikulua.- Batzarrak.

1. Kontseiluak urtean behin batzartuko dira, gutxienez, ohiko batzarra egiteko.
2. Hala ere, premiazko arrazoiengatik edo komenigarria delako, aparteko batzarrak ere egin ahal izango dira, Burutzaren ekimenez edo, gutxienez, zinegotziak ez diren kontseilu bakoitzeko kideen herenak eskatuta.

64. artikulua.- Bertaratze quoruma.

Egiten diren batzarrek balioa izan dezaten, beharrezkoa izango da Burutza eta, gutxienez, kideen herena egotea. Quorum hori batzar osoan mantendu beharko da. Quorum hori lortu ezean, ondoriorik gabe geratuko da deialdia.

65. artikulua.- Deialdia.

1. Burutzak egingo du batzarretarako deialdia. Deialdiarekin batera, aztertuko diren gaiak dituen gai-zerrenda eman beharko da, kontseilu bakoitzeko kideek aurkez litzaketen proposamenen arabera eginda. Batzarra egin baino zazpi egun lehenago eman beharko da, gutxienez. Batzarrerako deialdia eman den egunaren eta batzarra egiteko egunaren arteko tartea ezin izango da zazpi egun baino gutxiagokoa izan.

2. Aparteko deialdien kasuan, ezin izango da hogeita hamar egun baino gehiago igaro eskabidearen egunaren eta batzarraren egunaren artean. Kontseilua egin baino hamabost egun lehenago bidaliko da deialdia. Deialdia premiazko arrazoiengatik eginez gero, ahalik eta arinen egingo da deialdia.

66. artikulua.- Batzarretako eztabaidak eta ordena.

Kontseilu bakoitzeko buruak zuzenduko ditu batzarrak, eztabaidak antolatuko ditu eta batzarrak ondo egiten direla bermatzeko komeni diren neurriak hartuko ditu.

67. artikulua.- Hizkuntzak.

Kontseiluen batzarretara doazenek, euskaraz nahiz gaztelaniaz hitz egin ahal izango dute.

68. artikulua.- Bertaratu daitezkeen beste batzuk.

Eskuordetutako zinegotziak eta udal langile eta zuzendariak kontseiluen batzar guztietara joan ahal izango dira, Burutzak deituta edo Kontseiluko kideen herenak eskatuta (zinegotziak izan zein ez), bidezko aholkularitza teknikoa emateko.

69. artikulua.- Kontseiluen asmoa adieraztea.

Sektore kontseiluen asmoa ez da erabakiak hartzea, baizik eta ordezkaturako talde guztien iritzia jasotzea (horretarako proposaturako gaien gaineko iritzia, alegia). Ondorioz, kontseiluen asmoaren adierazpena plurala da, eta udalaren gobernu-organoei egindako jarduketa-proposamenen edo bestelako proposamenen gainean kideek duten iritzian gauzatzen da.

Proposamen horiek taldeetan bildutakoak edo horien artean aurkakoak izan daitezke, baina horiek guztiak aktan agertuko dira, udalak horien guztien berri izan dezan.”

70. artikulua.- Barruko arauak.

Kontseilu bakoitzak barruko funtzionamendu-arauak ezarri ahal izango ditu eta, horrela, lan-taldeak eratu, edo Batzar Iraunkorrak, lan-taldeak eta batzorde teknikoak sortu.

71. artikulua.- Tokia eta aktak.

Kontseiluen batzarrak Udalaren bulegoetan egingo dira, eta Kontseiluko idazkariak batzar bakoitzaren akta egingo du. Akta hori Kontseiluko mahaikideei

bidaliko zaie hurrengo aktaren deialdiarekin batera, eta hurrengo batzarrean onestea edo ez erabakiko dute.

72. artikulua.- Urteko txostena.

Kontseilu bakoitzak, urtero, tarte horretan egindako jarduerak, proposamenak, iradokizunak eta keak dituen txostena eztabaidatu eta onetsiko du. Ondoren Udalaren Osoko Bilkurari helaraziko zaio, aintzat har dezan.

73. artikulua.- Ordezko eskubidea.

Agindu honetan aurreikusi ez den guztirako, Osoko Bilkurak bidezko kontseiluak proposatuta onetsiko duen Araudiari jarraituko zaio eta, horren ezean, indarrean dagoen Udal Araudi Organikoak xedatutakoari.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Herritarren partaidetza sustatzeko jarduerak.

Herritarrek udal kudeaketan duten partaidetza hobetzeko, Udalak honakoa sustatuko du, Araudi hau indarrean sartu eta urtebeteko epean:

1. Herritar Gutuna, herritarren informazio, kontsulta, elkartegintza, batzar eta partaidetzarako eskubideak hobeto erabiltzeko bitarteko egokiak argitu, zabaldu eta erabiltzen lagunduko duena.
2. Partaidetza Plana, udal antolaketa hobetzeko eta herri-ekimenetarako irekiagoa egiteko, elkarre-sarea egituratu eta sendotzeko eta herritarrek euren herria hobetzeko esku hartzeari buruz duten interesa sendotzeko aukera emanaz.
3. Asoziazionismoa eta Boluntariotza Sustatzeko Plana, udalerriko elkarte eta erakundeek udal kudeaketarako partaidetza-prozesuan parte hartzea errazteko.

Bigarrena.- Eredu edo esperientzia berriak.

Partaidetza hobetzeko eredu, esperientzia edo sistema berriak azaltzekotan, Alkatetzak sartu egin ahal izango ditu, Hiriko Kontseiluak proposatuta, betiere Araudi hau aldatzea eragiten ez badute.

Hirugarrena.- Herritar Erakundeen Udal Fitxategia sortzea.

Gehienez hiru hilabeteko epean, Araudi hau indarrean sartzen denetik aurrera zenbatzen hasita, Herritar Erakundearen Udal Fitxategia sortuko da, herritarrei jakinarazteko bidezkoztat joko diren kanpainak egin ondoren. Hori dela eta, Alkatetzari ahalmena ematen zaio hori sortzeko beharrezko ebazpen guztiak eman ditzan, Araudi honetan xedatutakoa betetzarren.

Laugarrena.- Kontseiluak eratzeko batzarra.

Gehienez sei hilabeteko epean, Araudi hau indarrean sartzen denetik aurrera zenbatzen hasita, eratzeko batzarra egin beharko dute bertan ezarritako kontseilu guztiek.

Bosgarrena.- Udal Araudi Organikoaren agindua berriro idaztea.

Horrela geratuko da idatzita indarrean dagoen Udal Araudi Organikoaren 125. artikulua:

“Aurreko aginduan aitortutako eskubideak eta, oro har, herritarrek parte hartzeko duten eskubide guztiak erabiltzeko, indarrean dagoen Herritarren Partaidetzarako Araudian xedatutakoari jarraituko zaio.”

Seigarrena.- Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Araudia berriro idaztea.

1.- Indarrean dagoen Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Araudiaren 6. artikulua honela idatzita geratu da:

“6. artikulua.- Osaera

1. Plangintzako Aholku Batzordeak ondoko kide hauek izango ditu:

a) Batzordeko lehendakaritza: Udaleko alkatea, edo hark eskuordetzen duen zinegotzi bat.

b) Batzordeko lehendakariordeak:

1.a: Hirigintza-arloko zinegotzi eskuordetua edo hark eskuordetzen duen Udalbatzako kidea.

2.a: Ingurumen-arloko zinegotzi eskuordetua edo hark eskuordetzen duen Udalbatzako kidea. Hirigintza-arloko eta Ingurumen-arloko zinegotzia pertsona berbera izanez gero, alkateak hauta bidez izendatzen duen Udalbatzako edozein kide izan ahalko da batzordeko bigarren buruordea.

c) Epaimahaikide titularrak.

- Lurralde Politikako zuzendaria; hitza edukiko du, baina proposamen-gaitasunik ez.*
- Auzokideen elkarteen izenean..... Ordezkar 1*

- *Elkarte ekologisten eta ingurumenaren aldekoen izenean*
Ordezkar1
- *Zentral sindikalen izenean* Ordezkar1
- *Merkatari eta enpresaburuen elkarteen izenean* Ordezkar1
- *Ezinduen elkarteen izenean.....* Ordezkar1
- *Gazteriaren kontseiluaren/gazteen elkarteen izenean* Ordezkar1
- *Emakumeen elkarteen izenean* Ordezkar1

d) Idazkaria: Hirigintza-gaietan eskudun den saileko goi mailako teknikari bat; hitz egiteko eskubidearekin, baina proposamen-gaitasunik gabe.

e) Era berean, udal talde politiko bakoitzeko ordezkari bat ere bertaratu ahalko da, hitza bai, baina proposamen-gaitasunik gabe.

2.- Indarrean dagoen Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Araudiaren 7. artikuluko 5. atala honela idatzita geratu da:

“7. artikulua.- Batzordeko kide titularren ordezkaritza...

5. Batzordeko buruak, batzordeko buruorde batek edo batzordeko kideen erdiak proposatuz gero, ondoko hauek batzordearen batzarretan parte har dezakete, nahiz eta batzordeko kide izan ez, hitz egiteko eskubidearekin baina proposamen-gaitasunik gabe:

Hirigintza planak idazteko ardura duten teknikariak.

Hirigintza eta Ingurumen gaietan adituak eta prestigio ezagunekoak diren pertsonak.”

3.- Indarrean dagoen Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Araudiaren 11. artikuluko 2. puntuko c), d) eta h) atalak honela idatzita geratu dira:

“11. artikulua.- Aholku Batzordeko lehendakaritza...

.....

2.- Honako hauek dira batzordeko lehendakaritzaren eginkizunak...

- c) Hirigintzako plangintzaren eskuduntza duen informazio batzordeari bere esku utzi zaizkion gaiei buruzko eztabaiden eta proposamenen berri ematea.*

d) Kontseiluaren osoko bilkuran egindako proposamenak bete daitezela arduratu.

.....

h) Lehendakaritzak, batzordeko buruordeetako batek edo kideen erdiak egoki deritzen pertsonak batzordeko osoko bilkuretara gonbidatzea, hitz egiteko eskubidearekin baina proposamen-gaitasunik gabe, aztertu beharreko gaien arabera.”

4.- Indarrean dagoen Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Araudiaren 11. artikuluko 3. puntuko b) atala honela idatzita geratu da:

“11. artikulua.- Aholku Batzordeko burua...

.....

3. Honakoak izango dira batzordeko lehendakaritzaren eskumenak batzordearen bileretan:

....

b) Beharrezkoa balitz, kalitatezko boto bidez erabakitzea.”

5.- Indarrean dagoen Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Araudiaren 14. artikuluko 1. puntuko b) atala honela idatzita geratu da:

“14. artikulua.- Aholku Batzordeko lehendakaritza...

1. Honako eginkizun hauek izango ditu Aholku Batzordeko idazkariak, batzordeko lehendakaritzaren zuzendaritzapean:

.....

b) Batzordearen osoko bilkuraren bileretara bertaratzea eta aholkuak ematea, hitza izango duela baina proposamen-gaitasunik ez, eta bileren akta idatzi eta batzordeko lehendakariarekin batera sinatzea.

6.- Indarrean dagoen Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Araudiaren 19. artikulua honela idatzita geratu da:

“19. artikulua.- Kontseiluaren asmoa adieraztea.

1.- Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordearen helburua ez da erabakiak hartzea, baizik eta ordezkaturako talde guztien iritziak jasotzea, hain zuzen, horretarako proposaturako gaien gaineko iritziak jasotzea. Ondorioz, kontseiluaren asmoaren adierazpena plurala da, eta udalaren gobernu-organoei

egindako jarduketa-proposamenen edo bestelako proposamenen gainean kideek duten iritzian gauzatzen da.

Proposamen horiek taldeetan bildutakoak edo horien artean aurkakoak izan daitezke, baina horiek guztiak aktan agertuko dira, udalak horien guztien berri izan dezan.

2.- Kontseiluko kideak diren pertsonen proposamenak txosten batean jasoko dira, hori idazkariak egingo du, eta aztertzen den gaiari buruzko hirigintzako espedientearen zati izango da. Proposamen horietan, hirigintzako egiturazko antolamenduari buruzko alternatiba zehatzak jaso ahal izango dira, nahiz eta horiek Udalarentzat ez duten izaera loteslea izango.”

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Honakoak indargabetuta geratuko dira:

1. Indarrean dagoen Udal Araudi Organikoaren 126 eta 135. zenbakien bitarteko artikulak.
2. Indarrean dagoen Elkarteen Araudia.
3. Araudi honetan xedatutakoaren kontra doazen maila bereko edo beheragoko gainerako xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean guztiz argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.